



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Sopelako Udala

Sopelako Liburutegiko Laguntzaileen lan-poltsak sortzeko deialdiko oinarriak onartzea.

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarra, 2020ko otsailaren 28an ospatutako bileran, honako erabakia hartu zuela

Lehenengoa: Sopelako Liburutegiko Laguntzaileen lan-poltsa sortzeko deialdiko oinarriak onartzea.

Bigarrena: Deialdi hau eta bere akordio honekin batera doan oinarriak, oso-osorik, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Sopelan, 2020ko otsailaren 28an. — Alkatea

**LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEEN LAN-POLTSA SORTZEKO
HAUTAKETA-PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK****Lehena. — Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea da liburutegiko laguntzaileen lan-poltsa sortzea, da Administrazio Berezikoko Eskalako Laguntzaileen Azpieskalako karrerako funtzionarioen lanpostuak ordezkapenen bidez honako kasu hauetan betetzeko: Titularrak aldi baterako falta direnean, lanpostu hutsak behin-behinean betetzeko, jabetzan betetzen diren arte, bai eta aldi baterako programak gauzatzeko.

Sortzen den lan-poltsa subsidiarioa izango da aurreko poltsarekiko, eta poltsa agortuz gero bakarrik erabiliko da.

Ordainsaria aldi baterako betetzen den lanpostuari dagokiona izango da, eta eginkizunak ere lanpostu horri dagozkionak izango dira.

Bigarrena. — Baldintzak

Hautaprobetan parte hartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

— Honako hauekoren bat gertatzea:

- 1) Europar Batasuneko herritarra edo haren ezkontidea izatea, zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta haren ondorengoak eta ezkontidearenak ere, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak edo adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.
- 2) Europar Batasunak egindako eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio-eremuan sartuta egotea, horietan langileen zirkulazio askea aplikatu behar baita.

— Hamasei urte beteta izatea, eta Funtzio Publikoaren arloko oinarritzko legeriak aplikaturiko nahitaezko erretirorako adina iristeko hamar urte baino gutxiago ez izatea eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

— Halaber, eskola-graduatuaren titulua, LH I. titulua edo baliokidea izatea, edo titulu horiek lortzeko eskubideak ordainduta izatea eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

— Gaitz edo akats fisiko edota psikikorik ez izatea dagozkion zereginei aurre egiteko.

— Diziplinako espediente bidez Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo Tokiko Administrazioetik baztertuta ez egotea eta eginkizun publikoak burutzeko ezgaituta ez egotea.

— Herri Administrazioen Zerbitzurako Pertsonalaren Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritako ezintasun edo bateraezintasun legeko kausarik ez izatea.

— HAEEn ziurtagiri ofizialaren jabe izatea, 2. hizkuntza-eskakizuna edo maila handiagokoa edota ziurtagiri edo diploma baliokideak izatea egiaztatzen duena.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzean bete behar dira arestian aipaturiko baldintza guztiak.

Hirugarrena. — Eskabideak

Eskabideak telematikoki aurkeztuko dira www.sopela.eus webguneko oposizioen atarian eskuragarri dagoen aplikazio informatikoaren bidez, helbide honetan:

<https://sopelarin.sopelana.net/Oposiciones/WebOposiciones>

Eskabideak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoaren arabera ere aurkeztu ahal izango dira.

Eskabideetan, izangaiek adierazi beharko dute deialdiaren bigarren oinarrian eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna hartuko da kontuan.



Eskabidearekin batera, alegatutako merezimenduen zerrenda aurkeztuko da, Sopedako Udaleko Erregistro Orokorrean eskuragarri egongo den eredu normalizatuaren arabera, bai eta horien egiaztagiria ere.

Eskabideak Udaltzatuko lehenakariari zuzenduko zaizkio, eta telematikoki edo Sopelako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, 5 egun balioduneko epean, oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Laugarrena. — Izangaiak onartzea

Lan-poltsan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda Sopelako udaletxeko iragarki-oholean eta oposizioen atarian argitaratuko da, eta 5 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak egiteko eta eskabideak dituen akatsak zuzentzeko.

Aurkeztutako erreklamazioak onartu edo atzera botako dira onartutako edo baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtzen duen ebazpenean, eta aurreko atalean aurreikusitako moduan argitaratuko da.

Behin-behineko zerrendak automatikoki behin betikotzat joko dira erreklamaziorik ez badago. Behin betiko zerrendak udaletxeko iragarki-taulan eta oposizioen atarian argitaratuko dira.

Bosgarrena. — Epaimahai kalifikatzailea

Karrerako funtzionarioak izango dira kalifikazio mahaian, eta titularrek nahiz ordezkoei osatzen duten mahai hori onartutakoen behin-behineko zerrendarekin batera argitaratuko da Udaletxeko ediktu-taulan. Epaimahaiko kideak errekusatu egingo dira Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen baldin badira.

Deialdia egin baino lehen, epaimahaia eratu da, kideen eta bertan izango dira kide gehienak, titularrak edo ordezkioak. Saio horretan, epaimahaiak dagozkion erabaki guztiak hartuko ditu hautaketa-probak behar bezala egiteko.

Epaimahaia eratuakoa, balio osoz jarduteko, epaimahakideen, titularren edo ordezkioen gehiengo bertan egon beharko da. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, azken horrek ez baitu horretarako ahalmenik. Epaimahaiaren erabakiak bertaratutako botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketa gertatuz gero, presidentearen botoak ebaztuko du.

Epaimahaiak ahalmena du sortzen diren zalantzak argitzeko eta behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian.

Epaimahaiko kideek eskubidea izango dute zerbitzuaren zioz dagozkien ordainak jasotzeko, asistentziak barne, betiere horri buruzko indarrean dagoen araudiaren arabera.

Seigarrena. — Prozesuaren kalifikazioa

Lehiaketa-sistemaren bidez hautatuko dira hautagaiak.

Behin betiko sailkapenaren-ordena zehazteko, batu egingo dira lortutako puntuazioak.

Epaimahaiak merezimendu hauek baloratuko ditu, betiere eskabidearekin batera agiri bidez alegatu eta egiaztatu badira, hirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

Merezimenduak**A) Prestakuntza**

1. Arlo hauetako trebakuntza edo hobekuntza ikastaroak: Liburutegi publiko bateko lanari dagozkion gaiak (artxibategia edo dokumentazioa), betiere prestakuntza zentro ofizial homologatuek edo ospe handikoek emanak, 200 ordukoak edo gehiagokoak: 18 puntu ikastaro bakoitzeko. Azpiatal honetan gehienez ere 18 puntu lortu ahal izango dira.

2. Arlo hauetako trebakuntza edo hobekuntza ikastaroak: Liburutegi publiko bateko lanari dagozkion gaiak (artxibategia edo dokumentazioa), betiere prestakuntza zentro ofizial homologatuek edo ospe handikoek emanak, 100-199 ordukoak: 8 puntu ikastaro bakoitzeko. Azpiatal honetan gehienez ere 16 puntu lortu ahal izango dira.



3. Arlo hauetako trebakuntza edo hobekuntza ikastaroak: Liburutegi publiko bateko lanari dagozkion gaietan (artxiiboak edo dokumentazioa), betiere prestakuntza zentro ofizial homologatuek edo ospe handikoek emanak, 50-99 ordukoak. 4 puntu ikastaro bakoitzeko. Azpiatal honetan 12 puntu lortu ahal izango dira gehienez ere.

4. Herritarren arretari, berdintasunari edo gizarteratzeari buruzko prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaroak: 2 puntu ikastaro bakoitzeko. Azpiatal honetan gehienez ere 6 puntu lortu ahal izango dira.

Ez dira baloratuko 50 ordutik beherako ikastaroak.

Balorazioa egiteko jasotako 10 orduko prestakuntzaren unibertsitate-kreditu baten baliokidetasuna hartuko da aintzat.

Trebakuntzagatik gehienez 20 puntu lortu ahal izango dira.

B) Titulazioa

Eskatutakoa baino altuagoak diren beste titulazio ofizial batzuk izatea baloratuko da:

— 5 puntu goi-mailako batxilergoa, II. mailako lanbide-heziketa edo baliokidea edukitzeagatik.

— 10 puntu, gradua, lizentzia edo baliokidea edukitzeagatik.

Titulazio bakoitzeko gehienez ere 10 puntu lortu ahal izango dira.

C) Euskara:

3. hizkuntza-eskakizuna edo altuagoa edo baliokidea egiaztatzea: 20 puntu.

C) Esperientzia

Lanbide-esperientzia liburutegi publikoetan, liburutegiko laguntzaile gisa edo gorago-ko kategoria batean —0,5 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko—, 50 puntu gehienez.

Hilabete baino gutxiagoko denbora-zatiak ezetsiko dira.

Liburutegi publikoetan emandako zerbitzuak dagokion administrazioak emandako zerbitzuen ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira.

Liburutegi publiko baten zeharkako kudeaketa egiten duen enpresa pribatu batean zerbitzuak eman baditu, lan-bizitzaren txostenaren eta enpresa-ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da esperientzia.

Zazpigarrena. — Puntuazioak argitaratzea eta lan-poltsak egitea

Kalifikazioa amaituta, epaimahaiak gaingiduen zerrenda argitaratuko du, puntuazio handienetik txikienera.

Deialdiaren xede den kategorian emakumeen ordezkartza% 40tik gorakoa dela kontuan hartuta, berdinketak «esperientzia» atalean lortutako puntuazio handienaren arabera ebatziko dira.

Zortzigarrena. — Gorabeherak

Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak argitzeko eta hautaketa-prozesua behar bezala egiteko behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian.

Deialdiaren, oinarrien eta haien eta epaimahaiaren ondoriozko administrazio-egintza guztien kontra egin daiteke Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikutsitako epeetan eta moduan.